

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

64

AGINDUA, 2024ko abenduaren 13koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, Ogasun eta Finantza Saileko behin-behineko langilea izendatzen duena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28.1 artikuluan, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 19.1 a) eta 30.3 artikuluetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan emandako ahalmenak erabiliz, Funtzio Publikoaren Zuzendari-tzak egindako txostenarekin bat etorritik eta horretarako aurrekontu-kreditua dagoenez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Cirilo Dávila Garcia jauna Ogasun eta Finantza Saileko komunikazio-aholkulari izendatzea, zuzendari mailarekin (kodea: 5223; dotazioa: 21).

Bigarrena.– Interesdunak aholkuak emango dizkio Ogasun eta Finantzetako sailburuari.

Hirugarrena.– Interesdunak eskubidea izango du, legez horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen baditu, Goi-kargudunen ordainsariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 3.1 eta/edo 5.1 artikuluetan jasotako aurreikuspenen bat edo guztiak aplikatu dakizkion.

Laugarrena.– Izendapen honek 2024ko abenduaren 17tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Era berean, agindu honen bidez behin-behineko langile gisa ezartzen den zerbitzu-harremana automatikoki iraungiko da konfiantza- edo aholkularitza-funtzioa betetzen duen agintariak kargua uzten duenean, hargatik eragotzi gabe aurreko edozein unetan ezeztatu ahal izatea.

Bosgarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 13a.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.